

**PROGRAMA**1216 HERRI-ADMINISTRAZIOETAKO LANGILEAK  
AUKERATU ETA PRESTATU**ARDURADUNA**  
43 IVAPHERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEKO  
ZUZENDARIAHELBURUA

1. ADMINISTRAZIOAREN ETA ZUZENBIDE PUBLIKOAREN ARLOAN, IRAKASKUNTZA ETA TOPAKETAK BULTZATZEA GAI HORIETAN SAKONTZEKO, BETIERE, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BEREZITASUNEI GARRANTZI BEREZIA EMANDA.
2. ZUZENBIDE PUBLIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO-ZIENTZIAREN BERRI EMATEA.
3. ADMINISTRAZIOAREN ETA ZUZENBIDE PUBLIKOAREN INGURUKO IKERKUNTZA BULTZATZEA, LANGILEEN KUDEAKETA INTEGRALA AZTERTZEARI GARRANTZI BEREZIA EMANDA.
4. ZUZENBIDE PUBLIKOAN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN ADITUAK DIREN LANGILEAK PRESTATZEA ETA HOBETZEA; EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEEK ETA POLITIKA MAILAKO BEREZITASUNEK GARRANTZI BEREZIA IZANGO DUTE.
5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOEN JARDUNA HOBETZEA.
6. FUNTZIONARIOEN, PROFESIOALEN ETA GRADUATU-ONDOKOEN PRESTAKUNTZA SUSTATZEA, HIRIGINTZA, LURRALDE-ANTOLAMENDU ETA INGURUMENAREN ARLOETAN.
7. HIRIGINTZAREN, LURRALDE-ANTOLAMENDUAREN ETA INGURUMENAREN HEDAPENA.
8. EAE-KO HERRI-ADMINISTRAZIOERAKO LANGILEAK AUKERATZEA.
9. EAE-KO HERRI-ADMINISTRAZIOKO LANGILEEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA.

BETETZE MAILA.

1) Zenbait jardunaldi eta mintegi antolatu dira. Haietan, oraintsuko lege-proiektuen xede diren gaiak aztertu dira bereziki, baina bai eta beste eremu batzuk ere, esaterako, toki-administrazioa, funtzio publikoa, edo gure antolamendu juridiko-politikoaren berezitasunak. Ekitaldi horiek guztiak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatu ditu, batzuk bakarka eta beste batzuk, aldiz, izaera zientifikoko beste erakunde batzuekin lankidetzan.

2) Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkariaren hiru hilez behingo aleak argitaratu dira. Orobat, zuzenbide publikoaren eta administrazio-zientziaren arloko zenbait argitalpen kaleratu dira; batez ere arlo hauetakoak: hizkuntza-normalkuntza, administrazio-hizkera, Europako erakundeak, ingurumena, zuzenbide konstituzionala, zuzenbide autonomikoa...

**PROGRAMA**1216 SELECCIÓN Y FORMACIÓN DEL PERSONAL DE  
ADMINISTRACIONES PÚBLICAS**RESPONSABLE**  
43 IVAPDIRECTOR DEL INSTITUTO VASCO DE  
ADMINISTRACIÓN PÚBLICAOBJETIVO

1. *DOCENCIA Y FOMENTO DE FOROS DE ENCUENTRO Y PROFUNDIZACIÓN EN RELACIÓN A LA ADMINISTRACIÓN Y EL DERECHO PÚBLICO, CON ESPECIAL INCIDENCIA EN LAS PARTICULARIDADES DE LA C.A.P.V.*
2. *DIFUSIÓN DEL DERECHO PÚBLICO Y DE LA CIENCIA DE LA ADMINISTRACIÓN.*
3. *FOMENTO DE LA INVESTIGACIÓN EN ADMINISTRACIÓN Y DERECHO PÚBLICO, CON ESPECIAL INCIDENCIA EN EL ESTUDIO DE LA GESTIÓN INTEGRAL DE RECURSOS HUMANOS.*
4. *FORMACIÓN Y PERFECCIONAMIENTO DE PERSONAL CUALIFICADO EN EL CAMPO DEL DERECHO Y LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y, ESPECIALMENTE, EN REFERENCIA A LAS PECULIARIDADES JURÍDICO-POLÍTICAS DE LA CAPV.*
5. *MEJORA DEL FUNCIONAMIENTO DE LAS DISTINTAS ADMINISTRACIONES DE LA CAPV.*
6. *FORMACIÓN, EN MATERIA URBANÍSTICA, DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTAL DE FUNCIONARIOS, PROFESIONALES Y POSTGRADUADOS.*
7. *DIFUSIÓN DEL URBANISMO, LA ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y EL MEDIO AMBIENTE.*
8. *SELECCIÓN DE PERSONAL PARA LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA EN LA CAPV.*
9. *FORMACIÓN DESTINADA AL PERSONAL QUE PRESTA SUS SERVICIOS EN LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DE LA CAPV.*

GRADO DE CUMPLIMIENTO.

1) *Se han desarrollado varias jornadas y seminarios, incidiendo especialmente en las materias objeto de proyectos legislativos recientes, y otros ámbitos, tales como Administración Local, función pública, o, particularidades de nuestra configuración jurídico-política, todos ellos organizados por el propio Instituto Vasco de Administración Pública, o por el propio Instituto en colaboración con otras entidades de carácter científico.*

2) *Se han editado los nuevos números trimestrales de la Revista Vasca de Administración Pública. Asimismo, se han editado diversas publicaciones del ámbito del Derecho Público y la Ciencia de la Administración, especialmente referidas a normalización lingüística, lenguaje administrativo, Instituciones Europeas, medio ambiente, derecho constitucional, derecho autonómico...*

3) 2008-2009 ikasturtean, herri-administrazioaren arloko ikerketak egiteko bi prestakuntza-beka antolatu dira. Deialdia hutsik geratu da, ez baita inolako eskabiderik aurkeztu.

2009-2010 ikasturtean ez da herri-administrazioaren arloko ikerketak egiteko prestakuntza-bekarik antolatu.

2008-2009 ikasturtean, hiru laguntza-deialdi egin dira herri-administrazioaren arloan intereseko eta gaurkotasunekoak diren gai batzuei buruzko ikerketa sustatzearren; deialdi horien garapena eta jarraipena ere egin da. Horri esker, hainbat jatorritako ikertzaile eta profesionalak aukera izan dute herri-administrazioaren arloaren barruan interesatzen zaizkien eta gaurkotasun zientifikokoak diren gaiak jorratzeko; ikerketa horiek laguntzen epea amaitutakoan aurkeztutako lanean gauzatuko dira.

Ekitaldi honetan (2008-2009), arestian aipatutako laguntzen bidez ikerketa bakarra burutu da eta honako eremu hau izan du ikergai: esparru juridikoa eta instituzionala, batetik, eta garapenerako lankidetzaren autonomikoa berritzea, bestetik, betiere Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez.

Beste bi laguntzei dagokienez, onuradun batek uko egin zion laguntzari, eta besteak ez zuen inongo ikerketarik aurkeztu, beraz, deialdian aurreikusita zegoen bezala, egin zitzaion ordainketa atzera botatzeko prozedurari hasiera eman zitzaion. Aipatutako ordainketa itzuli egin da.

2009-2010 ikasturtean, herri-administrazioarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzearren hiru laguntza emateko deialdia eta esleipena egin da.

“Jesús M<sup>a</sup> Leizaola - 2009” sarirako deia egin da; sari honen bitartez, euskal autonomiarekin lotutako gaiak —edo autonomia ikertzeko eta sakontzekoak— ikuspegi guztiz askearekin aztertu dituzten ikertzaileak edo talde kualifikatuak akuilatu nahi dira, eta beren ahaleginen berri eman.

Saria Iñaki Alonso Arce jaunak aurkeztutako “El concierto económico en Europa: el equilibrio entre la autonomía tributaria foral y la construcción de la Europa del futuro” lanari eman zaio, eta akzesita Margarita Serna Vallejo andereak aurkeztutako “Los viajes pesquero-comerciales de guipuzcoanos y vizcaínos a Terranova (1530-1808): régimen jurídico” lanari eman zaio.

4). Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Publikoaren Institutuarekin batera, Ogasun eta Finantza Publikoetako master eta espezialista tituluak garatu dira. Herri-administrazioaren berezko gaietan espezialista adituak trebatzea bultzatzen dute proiektu horiek.

5). Maila eta lurralde historiko guztietako administrazioek egindako aholkularitza-eskariei erantzuteko, hainbat txosten idatzi dira, eta telefono bidezko kontsulta asko erantzun dira. Eskariak, orokorrean, ondokoei buruzkoak izan dira: administrazio-antolamenduari buruzko gaiak eta

3) Durante el curso 2008-2009 se han convocado dos becas para la formación e investigación en el campo de la Administración Pública. La convocatoria ha sido declarada desierta, puesto que no se ha presentado ninguna solicitud.

Durante el curso 2009-2010 no se han convocado becas para la formación e investigación en el campo de la Administración Pública.

Durante el curso 2008-2009 se han convocado, desarrollado y realizado el seguimiento de tres ayudas a la realización de investigaciones en materias de interés y actualidad en relación con la Administración Pública, posibilitando el que investigadores y profesionales de distintas procedencias se ocupen de temas de interés y actualidad científica en el ámbito de la Administración Pública, y el que se logre la materialización de tales investigaciones en la presentación de un trabajo final.

En este ejercicio 2008-2009 sólo se ha materializado una investigación mediante estas ayudas, investigación dirigida al siguiente ámbito: el marco jurídico-institucional y la renovación de la cooperación autonómica al desarrollo, referido todo ello a caso del País Vasco.

De las otras dos ayudas uno de los beneficiarios renunció a la ayuda, y el otro no presentó ninguna investigación por lo que se procedió a la reversión del pago que, siguiendo lo marcado en la convocatoria, se le había realizado. El reintegro del citado pago ha sido efectuado.

Durante el curso 2009-2010 se han convocado tres ayudas destinadas al fomento de la investigación sobre temas relacionados con la Administración Pública.

Se ha convocado el Premio “Jesús M<sup>a</sup> de Leizaola”-2009 para posibilitar el propósito de estimular y dar a conocer los esfuerzos de investigadores o equipos cualificados que, con absoluta libertad de enfoque, encaucen sus estudios hacia temas relacionados con la autonomía vasca o que puedan redundar en el estudio y profundización de ésta.

El premio ha sido concedido a D. Iñaki Alonso Arce por su trabajo titulado “El concierto económico en Europa: el equilibrio entre la autonomía tributaria foral y la construcción de la Europa del futuro”, mientras el accésit ha sido concedido a Dña. Margarita Serna Vallejo por su trabajo titulado “Los viajes pesquero-comerciales de guipuzcoanos y vizcaínos a Terranova (1530-1808): régimen jurídico”.

4) Se han desarrollado, conjuntamente, con el Instituto de Economía Pública de la Universidad del País Vasco, máster y diploma en Hacienda y Finanzas Públicas. Ambos proyectos potencian la formación de especialistas cualificados en materias propias de la Administración Pública.

5) Se han elaborado diversos informes escritos, y atendido numerosas consultas telefónicas, en respuesta a solicitudes de asesoramiento de las Administraciones de los distintos niveles y Territorios Históricos, en relación, fundamentalmente, con las materias de organización

herri-administrazioaren jarduna, hizkuntza-normalkuntza, funtzio publikoa, zerbitzu publikoen kudeaketa, ondasun publikoak eta administrazioaren kontratazioa.

6). Ikastaroak eta mintegiak egin dira hirigintza, ingurumen eta lurralde-antolamenduaren arloko prestakuntza areagotzeko. Prestakuntza hori euskal herri-administrazioetako langileei zuzenduta egon da, baita profesionaleri eta graduatu-ondokoei ere.

2009an zehar iraupen luzeko prestakuntza ekintza 2 izan ditugu, guztira 800 ikastordu: Hirigintzako XXVII. Ikastaroa (Bilbo, 2008-2009, 400 ordu eta guztira 298 matrikula, modulu solteak barne) eta Hirigintzako XXVIII. Ikastaroa (Donostia, 2008-2009, 400 ordu eta guztira 135 matrikula, modulu solteak barne).

Halaber, 2009-2010 aldian, Hirigintzako XXIX. eta XXX. Ikastaroen lehenengo bi modulua ere hasi dira. Bilbon 13 ikasle matrikulatu dira ikastaro osoa egiteko, 29 lehenengo moduluan, eta 38, bigarrenean. Donostian, 6 ikasle egingo dute ikastaro osoa, 25 ikasle matrikulatu dira lehenengo moduluan, eta 23 bigarrenean.

2009an zehar, hirigintza- eta lurralde-arloko 9 prestakuntza-jarduera espezializatu labur diseinatu, antolatu eta kudeatu dira (ikastaro monografikoak), fuzionarioentzat eta profesionalentzat; guztira, 166 ordu eta 275 ikasle.

Ingurumenari buruzko prestakuntzaren atalaren barruan, beste 9 prestakuntza-jarduera egin dira, zuzenean Ingurumeneko eta industriako zaratari buruz eta IHOBEREkin lankidetzan honako hauek: Erosketa publiko berdea: Ingurumen irizpideak euskal administrazioaren erosketetan eta kontratazioetan sartzea; Klima aldaketa Euskal administrazioaren eremutik, eta Eraikuntzako eta eraiketarako hondakinen (EEH) kudeaketa Euskal administrazioaren eremuan. Guztira, prestakuntza-jarduera horietan 136 ordu erabili dira, eta 123 ikaslek hartu dute parte.

Hirigintzako XXVII. eta XXVIII. Ikastaroen ondorioz, 4 hilabete inguru eman dituzte praktikak egiten 7 ikaslek, 3 Bizkaiko toki-erakundetan eta 4 Gipuzkoako toki-erakundetan.

7) 2009. urtean zehar, liburu hau argitaratu da: "Análisis del tratamiento del medio físico en el planeamiento territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco (1940-2006)". Bere egilea Peio Urkidi Elorrieta da.

8) 2009. urtean zehar, HAURRESKOLA partzuergoko hezitzaileen (lan-kontratuko langileen) 235 lanposturako hautaketa-prozesuan lagundu da. 926 izangai aurkeztu ziren.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan jardun da, honako hautaketa prozesuetan: Maisu-maistren kidegoko 1.051 lanpostu. 2.231 izangai

administrativa y funcionamiento de la Administración Pública, normalización lingüística, función pública, gestión de servicios públicos, bienes públicos y contratación administrativa.

6). Se han desarrollado cursos y seminarios que han propiciado un incremento de la formación en materia urbanística, medio ambiental y de ordenación del territorio del personal de las Administraciones vascas, profesionales y postgraduados/as.

Durante el 2009 se han realizado 2 actividades de larga duración, con un total de 800 horas lectivas: el XXVII Curso de Urbanismo (Bilbao, 2008-2009, 400 horas y 298 matrículas incluyendo módulos) y el XXVIII Curso de Urbanismo (Donostia-San Sebastian, 2008-2009, 400 horas de duración y 135 matrículas).

También se han iniciado durante el periodo 2009-2010 los dos primeros módulos del XXIX Curso de Urbanismo y del XXX Curso de Urbanismo (2009-2010). En Bilbao se han matriculado 13 personas en el curso completo, 29 en el primer módulo y 38 en el segundo módulo. En Donostia, se han matriculado 6 personas en el curso completo, 25 en el primer módulo y 23 en el segundo.

Durante el 2009 se han diseñado, organizado y gestionado 9 actividades formativas especializadas, de corta duración, cursos monográficos, en materia urbanística y territorial para funcionarios/as y profesionales con un total de 166 horas, y 275 alumnos.

Dentro del apartado de la formación ambiental se han realizado otras 9 actividades, directamente sobre Ruido ambiental e industrial y de actividades y en colaboración con IHOBES sobre Compra pública verde: Incorporación de los criterios ambientales en las compras y contrataciones de la Administración Vasca, el cambio climático desde el ámbito de la Administración Vasca; y sobre la gestión de los residuos de construcción y demolición (RCD'S) en el ámbito de la Administración Vasca. En total estas actividades formativas han supuesto 136 horas y 123 asistentes.

Durante aproximadamente 4 meses se han realizado las prácticas derivadas del XXVII y XXVIII curso de Urbanismo por 7 alumnos y alumnas: 3 personas en instituciones locales en Bizkaia y 4 personas en instituciones locales en Gipuzkoa.

7) Durante el año 2009 se ha publicado el libro: "Análisis del tratamiento del medio físico en el planeamiento territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco (1940-2006)". Su autor es Peio Urkidi Elorrieta.

8) Durante el año 2009 se ha colaborado en el proceso selectivo de 235 plazas de Educadores/as (personal laboral) del consorcio HAURRESKOLA, al que se presentaron 926 aspirantes.

Se ha colaborado con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en los siguientes procesos selectivos de la Administración educativa:

aurkeztu ziren.

Bestalde, 2009an aldi baterako zerbitzuen beharrak betetzeko lan-poltsak osatze aldera 9 hautaketa-prozesu bukatu dira (2008an hasitakoak) eta 7 berri deitu dira. Prozesu horietako bakoitzean, batez beste, 783 izangaik parte hartu dute.

Toki eta Foru Administrazioan funtzionarioak hautatzeko epaimahaietan IVAPek izendatutako teknikari batek parte hartzeari dagokionez, beste administrazio batzuen 274 hautaketa-prozesutarako bere ordezkaria izendatu du IVAPek.

Lankidetzan aritu da Toki eta Foru Administrazioarekin haiek deitutako hautaketa-prozesuak kudeatzean (291 kolaborazio). Nabarmentzeko modukoa da, izan duen neurriagatik, OSAKIDETZArekiko lankidetzan, haren enplegu-eskaintza publikoa gauzatzeko, hain zuzen ere.

Autonomia erkidegoan dauden 6 suhiltzaile-etxeek suhiltzaileak batera hautatzeko proposamenak ez du arrakastarik izan eta erakunde bakoitzak bere deialdiak egiten jarraitu du. Dena dela, aurrera egin da administrazio desberdinen beste kidegoetako hautaketa prozesuen deialdiak batzeko diseinuarekin. Zehazki, talde-lan bat sortu da, toki-administrazio ordezkariekin asmo honetan aurrera egiteko eta 2010eko lehen hiru hilabeteetan proba piloto bat egiteko.

HAUTANET ezin izan da abian jarri, Institutu honi ez dagozkion arazoengatik (Eusko Jaurlaritzaren informatika arloko antolaketa orokorarekin erlazionatutako arazoengatik). 2010. urtearen lehen hiruhilekorako espero da martxan jarzea.

Hautaketa Zerbitzuaren bi zerbitzu-gutun ezarri dira, bata, herritarrei zuzenduta eta, bestea, herri-administrazioei.

9) 2009. urtean 709 prestakuntza ekintza burutu dira, eta 11.522 lagunek parte hartu dute. Hauetatik 641 ikastaro bertaratze motakoak izan ziren 9.973 lagun bilduz. Online eta mixtoak 68 izan ziren 1.579 lagunek parte hartuz.

Kopuru hauen barne dira IVAP-ek prestakuntza arloan EAE-ko administrazio ezberdinekin duen lankidetzan hitzarmen edo akordioen ondorioz sortutako ikastaro edo prestakuntza ekintzak.

EAEko Administrazio Orokorrean programatuta ziren ikastaroak burutu eta 2010erako programazioa prestatu eta, urtea amaitu aurretik, argitaratu egin da.

Kargudunentzat eta zerbitzu-arduradunentzat 2010-2013 tartean aurrera atarako den prestakuntza programa landu

1051 maestros y maestras, al que se presentaron 2.231 aspirantes.

En el año 2009 se han finalizado 9 procesos convocados en 2008 y se han convocado 7 procesos selectivos para la conformación de bolsas de trabajo con objeto de satisfacer las necesidades de servicios de carácter temporal. En cada uno de estos últimos procesos ha participado una media de 783 aspirantes.

Con relación a la participación de un técnico designado por el IVAP en los diferentes Tribunales Calificadores para la selección de personal funcionario de la Administración Local y Foral, se ha designado un vocal en 274 procesos selectivos de otras administraciones.

Colaboración con la Administración Local y Foral en la gestión de los procesos selectivos por ellas convocados (291 colaboraciones). Merece la pena destacar, por su magnitud, la colaboración con Osakidetza en la materialización de su Oferta Pública de Empleo.

La propuesta de selección conjunta de Bomberos de los 6 parques existentes en la Comunidad Autónoma no ha prosperado y cada institución continúa haciendo sus propias convocatorias. Sin embargo, se sigue avanzado en el diseño de un procedimiento para unificar convocatorias de procesos selectivos de otros cuerpos de diferentes administraciones. Concretamente se ha creado un grupo de trabajo con representantes de la Administración Local para avanzar en este sentido y realizar una prueba piloto el primer trimestre del 2010.

La implantación del sistema HAUTANET no se ha producido, por causas ajenas a este Instituto y que están relacionadas con la organización general informática del Gobierno Vasco. Sin embargo, está prevista la implantación del sistema para el primer trimestre del año 2010.

Se han implantado dos Cartas de Servicios del Servicio de Selección dirigidas a la ciudadanía y a las administraciones públicas.

9) Durante el año 2009 se han realizado 709 acciones formativas en las que han participado 11.522 personas. De ellas 641 acciones han sido de modalidad presencial participando 9.973 personas y 68 de tipo online y mixto con la participación de 1579 personas.

En estos datos se incluye el conjunto de las administraciones con las que trabaja el servicio de formación del IVAP.

En lo que a la Administración General de la CAPV se refiere, además de ejecutar el programa formativo previsto, se ha planificado y publicado antes de fin de año el correspondiente al año 2010.

Se ha diseñado el programa formativo específico para Directivos Públicos de la AGCAPV incluyendo a altos

da. Programa honen helburua EAEko Administrazioan Zuzendaritza publikoan diren langile guztiei prestakuntza programa egokitua eskeintzea da, 100 ordutik gorakoa.

Ingelesa ikasteko ikastaroak, urtero egin den moduan, hiru lurraldeetan egin dira, gehienak Gasteizan izanda ere. Honez gain, ingelesezko hainbat hizkuntza gaitasuni buruzko ikastaro bereziak egin dira

Bi Lan-hitzarmen berri atera dira: bata HKEEkin eta bigarrena Igorreko udalarekin. Horretaz gain, EHUrekin 2010ean sinatuko den hitzarmen berri bat landu da.

Prestakuntza beharren azterketa hainbat tokitan egin da. Hitzarmen berrien ondorioz egindakoez gain, zenbait txosten egin dira EUSTATen, EAEko administrazio orokorrean, eta hainbat Udaletan egindako inkestetan oinarrituta.

Foru Administrazioen arloan, hiru Foru Aldundiekin egin da lan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Azpimarratzekoa da Bizkaiko Foru Aldundiarekin egindako lana, 300 ikastarotik gora egin baitira.

Toki Administrazioan, eta EUDELekin sinatutako Hitzarmena betez, Tokiko zuzendaritza publikoko programa aurreratua burutu eta hurrengo edizioa prestatu da. Prestatuta ziren ikastaroak amaitu eta hiru Foru Aldundiekin eta EUDELen partaidetzarekin Prestakuntza beharren azterketa sakona egin da 5000 biztanletik beherako udalen beharrak kontuan hartuz bereziki. Ataratako programazioa urtea amaitu aurretik argitaratu da.

Onlineko ikastaro berriak prestatu dira EJIEn laguntzarekin, 2010. urtean programazio barruan izango direnak. Ikastaro berri hauek hizkuntza bietan prestatu dira.

Herri Administrazioaren Europako Institutoarekin dugun lankidetzari lotuta, urteroko prestakuntza-jardunaldiak burutu dira. Jardunaldi hauek Administrazio ezberdinetan lan egiten duten langileei zuzenduak izaten dira.

Homologazioei buruz, 28 espediente tramitatu dira. Hauetatik denek lortu dute behin-behineko homologazioa. Behin-betikoa 14 espedientek lortu dute beste erdiak tramitean direla. Burututako espedienteen ondorioz, 280 ziurtagiri eman dira.

*cargos y responsables de servicio y que contempla el periodo 2010- 2013. Con una duración superior a las 100 horas, pretende llegar a todos los destinatarios.*

*El programa anual de formación en idioma inglés se ha desarrollado como en años anteriores lanzándose el correspondiente a 2009-2010. Se han desarrollado también cursos en inglés sobre habilidades específicas en este idioma.*

*Durante el año se han desarrollado dos nuevos convenios con el TVCP y con el ayuntamiento de Igorre. Se ha trabajado un nuevo convenio con la UPV que se firmaría en 2010.*

*Se han realizado varios estudios de necesidades formativas. Además de los derivados de los nuevos convenios, se han realizado informes derivados de encuestas en EUSTAT, Admón. General de la CAPV y en varios ayuntamientos.*

*En lo que a formación en las administraciones forales se refiere, se ha trabajado con las tres Diputaciones Forales destacando Bizkaia con más de 300 cursos.*

*Respecto a la administración local y en cumplimiento del convenio firmado con EUDEL, se culmina el programa avanzado en dirección pública programándose e iniciándose la edición 2009-2010. Se cumple el programa formativo anual y se realiza el estudio de necesidades de manera conjunta con las tres Diputaciones y EUDEL, prestando una atención especial a los municipios con menos de 5000 habitantes. El programa resultante se publica antes de fin de año.*

*Con la colaboración de EJI, se preparan nuevos cursos online tanto en euskera como en castellano que se pondrán en servicio a lo largo del 2010.*

*Como un resultado del convenio suscrito con el EIPA (Instituto Europeo de Administración Pública) se desarrolló la jornada formativa anual que tiene por destinatarios al conjunto del personal de la administración de la CAPV.*

*Respecto a las homologaciones, se tramitaron 28 expedientes todos los cuales recibieron la homologación provisional y 14 la definitiva. Los 14 restantes siguen en el proceso. De los expedientes culminados se emitieron 280 certificados.*

KOSTU / COSTE		AURREKONTU GAIN %a
KAPITULUAK / CAPITULOS	ZENBATEKOA IMPORTE	% SOBRE PRESUPUESTO
	(Milaka Euroak) (Miles de Euros)	
Langile Gastuak 1 - <i>Gastos de Personal</i>	2.808	96%
Funtzionamendu Gastuak 2 - <i>Gastos de funcionamiento</i>	3.031	86%
Gastu Arruntetarako Transf. eta Dirulaguntzak 4 - <i>Transf. y subv. para gastos corrientes</i>	143	86%
Inbertsio Errealak 6 - <i>Inversiones reales</i>	144	65%
Finantza-Aktiboen gehikuntza 8 - <i>Aumento de activos financieros</i>	32	100%

SARRERAK / INGRESOS		AURREKONTU GAIN %a
KAPITULUAK / CAPITULOS	ZENBATEKOA IMPORTE	% SOBRE PRESUPUESTO
	(Milaka Euroak) (Miles de Euros)	
Tasak, Salneurriak eta Zuzb. Publikoko B. Batzuk 3 - <i>Tasas, precios públ y otros ingresos derecho Público</i>	1.519	69%
Gastu Arruntetarako Transf. eta Dirulaguntzak 4 - <i>Transf. y subv. para gastos corrientes</i>	3.141	100%
Ondare-Sarrerak 5 - <i>Ingresos Patrimoniales</i>	4	28%
Finantza-Aktiboen Gutxitzea 8 - <i>Disminución de activos financieros</i>	15	1%

**PROGRAMA**4714 EUSKALDUNTZEA ETA HIZKUNTZA-  
NORMALIZAZIOA**ARDURADUNA**

43 IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEKO  
ZUZENDARIA**PROGRAMA**4714 EUSKALDUNIZACIÓN Y NORMALIZACIÓN  
LINGÜÍSTICA**RESPONSABLE**

43 IVAP

DIRECTOR DEL INSTITUTO VASCO DE  
ADMINISTRACIÓN PÚBLICAHELBURUA

1. EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIOETAKO LANGILEEN HIZKUNTZA-GAIKUNTZA.
2. ADMINISTRAZIO-HIZKERA AZTERTU ETA ZABALTZEA.
3. HERRI-ADMINISTRAZIOETAKO LANGILEEN EUSKARAZKO EZAGUPENAK EBALUATU ETA HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEA.
4. ITZULPENAK EGITEA, EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN ARTEKO LEGE-BALIOKIDETASUNA ZIURTATUZ.
5. ADMINISTRAZIO ETA LEGE ARLOKO TERMINOLOGIA BILDU, AZTERTU, FINKATU ETA ZABALTZEA.
6. ITZULTZAILE, INTERPRETARI ETA TERMINOLOGOEN PRESTAKUNTZA.

BETETZE MAILA.

- 1) A: Indarrean dirau 2003ko otsailaren 5ean IVAP eta HABEren artean sinatu zen hitzarmena herri-langileen euskalduntze-alfabetatzerako. Hitzarmenaren laugarren Azken Xedapena dioena betez, bi erakundeen arteko akordio baten bidez onartu ziren 2008/09 ikasturteko tarifak 2008ko uztailaren 24ean. Dena dela, 2009/10 ikasturteari dagokionez, tarifak ez dira igo, gastu publikoari eusteko ahaleginetan, eta, horrenbestez, 2008/09 ikasturterako onartu zirenak jarraitzen dute indarrean. Bestalde, urtero bezala, 2009an zehar ere, 1., 2. eta 3. hizkuntza eskakizunetarako prestakuntza ikastaroak antolatu dira. Ohiko deialdi biak egin dira: bata 2008ko azaroan 2009ko otsailean hasi eta ekainera arteko ikastaroetarako, eta bestea 2009ko apirilean, 2009ko urrian hasi ziren ikastaroetarako. Udako ikastaroak ere antolatu dira.

Ekintza hauen adierazle edo indikadorea, ikasle kopurua, aurreikuspen edo estimazio bat izan ohi da; ez da, beraz, erakundeak finkatu eta lortu beharreko helburua. Ondorengo taulan 2008/09 ikasturteko bigarren zatia eta 2009/10 ikasturteko lehen hiruhilabetekoa jaso dugu. Taulan agertzen dira zehaztutako epe bakoitzean izan dugun ikasle kopurua, ez onartutako eskabideak. Ikastaroetarako onartzen diren eskaerak gehiago diren arren, eskatzaile guztiak ez dira gero eskolaratzen. Hortaz, ondorengo taulan jasotzen dira ikasle kopuruak(\*):

OBJETIVO

1. CAPACITACIÓN LINGÜÍSTICA DE LOS TRABAJADORES DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS VASCAS.
2. ESTUDIO Y DIFUSIÓN DEL LENGUAJE ADMINISTRATIVO EN EUSKERA.
3. EVALUACIÓN DEL CONOCIMIENTO DE EUSKERA Y ACREDITACIÓN DE LOS PERFILES LINGÜÍSTICOS DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS.
4. REALIZAR TRADUCCIONES, GARANTIZANDO SU EQUIVALENCIA JURÍDICA.
5. RECOPIACIÓN, ESTUDIO, FIJACIÓN Y DIFUSIÓN DE LA TERMINOLOGÍA JURÍDICO-ADMINISTRATIVA EN EUSKERA.
6. FORMACIÓN DE TRADUCTORES, INTÉRPRETES Y TERMINÓLOGOS.

GRADO DE CUMPLIMIENTO.

